



# XVII. NAZIOARTEKO "FRANCISCO ESCUDERO" AKORDEOIRAKO KONPOSIZIO SARIKETA

1. MODALITATEA: Akordeoirako eta akordeoia duten ganbara musikako obren sorkuntza

Sari banaketa: 2024ko urriak 13. (Modelo Aretoa, Zarautz)

- \_ Sariketaren helburu nagusia, akordeoiko obra berrien sorkuntza indartzea da, bakarka nahiz Ganbara-Musikan.
- \_ Akordeoirako sortutako obrak, bakarka edo Ganbara-Musikan, aurkeztu ahal izango dira. Iraupena, gehienez, 10 minutukoa izango da. Ganbera-Musikaren kasuan, gehienez lau instrumentuz osaturiko obrak aurkeztu ahal izango dira (taldeak gutxienez akordeoi bat izan beharko du).
- \_ Partaideak edozein adin eta jatorrikoak izan daitezke.
- \_ 2020ko urtarrila ondoren sortutako obrak onartuko dira soilik.
- \_ Aurkeztutako obrak aurretik sortutako enkarguak izan daitezke eta estreinatua eta editatua egon daitezke, baina ez dira aurretik sarituak izan diren obrak onartuko.

## AURKEZTEKO MODUA

- \_ Obrak aurkezteko azken eguna **2024ko irailaren 23a** izango da.
- \_ Lanak bi modutan aurkez daitezke: eskuizkribu moduan (grafia argiaz eta zuzenketa edo ezabaketarik gabe) edo tipografiatua. Saritutako egileak, emaitzak eman eta handik 30 egun baino lehen, kopia informatizatua eta interpretaziorako behar diren artxibo informatikoak helarazi beharko dizkio antolakuntzari, inprimaturik.
- \_ Partituran lanaren izenburua edo leloa bakarrik agertuko da. Ez da onartuko identifikazio pertsonalaren edo sinaduraren inolako zantzurik. Horretarako beharrezkoa izango da obraren artxibo originaletik konpositorearen identifikazio pertsonala ezabatzea. Izen abizenekin aurkeztutako obrak ez dira onartuko.
- \_ Lehiaketa honetan parte hartzeko, ondorengo estekan eskatzen den informazioa eta dokumentazioa bete eta bidali beharko da: <https://forms.gle/2y5MQeEauZJEeU2J7>

1. Obraren ale bat formatu digitalean (edo deskargatzeko esteka; obraren egileak ziurtatu beharko du deskargatzeko beharrezkoak diren baimenak aktibatuko dituela.) Eskuz idatzitako partituren kasuan, artxibo digitala eskuizkribuaren eskaneatze bat izango da, irudi-kontraste nahikoarekin.

2. Biografia laburra.
3. Jaiotza-data egiaztatzen duen agiri ofizialaren fotokopia.
4. Lehiaketa honetan parte hartzea **doakoa** izango da, ez da tasarik ordaindu beharko.

## EPAIMAHAIA ETA SARIAK

- \_ Hauspozek, saritutako obra argitaratuko du. Epailiek hala baderitzote, saritu gabeak ere argitaratu ahal izango ditu Elkarteak.
- \_ Hauspozek, obra saritua Arrasateko lehiaketan erabiltzeko ahalmena izango du. Halaber, obren grabaketa, produkzio edo banaketa egin ahal izango du, horren truke, konposatzaileek, legeek adierazten dituzten irabaziaz jasotzeko eskubidea izango dutelarik, eta ez besterik.
- \_ Antolatzaileek epaimahaikideek hala adostuz gero, saria hutsik utz dezakete. Kasu horretan, eta epaimahaikideak ados egonez gero, saria pertsona edo elkarte bati eman ahal izango litzaioke, bere lana edo ibilbidea kontuan hartuta.
- \_ Lan irabazlearen berri ematean (kontzertu-programetan, argitaratzean zein bestelako soinu-adierazpideetan) honako lema hau erabili beharko da derrigorrez:

### "Francisco Escudero" Nazioarteko XVII. Konposizio Sarietako irabazlea.

- \_ Sariketan parte hartzeak, oinarrien onarpenera dakar berarekin.
- \_ Epaimahaia konposatzaile eta akordeoi jole ospetsu eta adituez osaturik egongo da.
- \_ Epaimahaikideen erabakiak apelaezinak izango dira.

## LEHEN SARIA

**2.000 € eta obraren edizioa**

*Diru-saria, legeak agintzen duen zergei loturik egongo da.*

Babesleak



fundación **Isaac** fundazioa



ZARAUZKO UDALA

Antolatzailea



www.hauspoz.org

hauspoz@hauspoz.org

+34 606 140 352



## XVII. NAZIOARTEKO "FRANCISCO ESCUDERO" AKORDEOIRAKO KONPOSIZIO SARIKETA

2. MODALITATEA: Akordeoi Ensenblerako Obra  
Pedagogikoak

Sari banaketa: 2024ko urriak 13. (Modelo Aretoa, Zarautz)

### Helburu pedagogikoetara bideratutako obrei eskainitako modalitatea (6-18 urte bitarteko ikasleentzat).

\_ Lehiaketa hau herrialde eta adin guztietako konpositoreei irekita dago, eta sari bat emango da bigarren modalitate honen baitan.

\_ Modalitate honetan parte hartuko duten konpositoreek helburu pedagogikoak dituen obra bat bidali ahal izango dute, instrumentazioa edozein dela ere. Ez dira bakarlarientzako obrak onartuko, ganbara musikako obrak izan beharko dute.

\_ Hautatutako konpositoreak enkargu bat jasoko du Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkartearengandik, **gehienez 5 ahotsetarako** izango den akordeoi ensemblerako obra pedagogiko bat idazteko. 6 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat zailtasun egokia izan beharko du obra berriak. Aipatutako obraren enkarguak **750 euroko** balioa izango du.

\_ Konpositore irabazleak idatzitako obra berri hau Hauspoz Euskal Herriko Elkarteak antolatzen duen akordeoi-joleentzako TOPAKORD topaketako hurrengo edizioan landu eta estreinatuko da. Obra berriak 2025ko martxoaren 1erako bukatuta egon beharko du.

\_ Lehiaketan parte hartzeko azken eguna **2024ko irailaren 23a** izango da.

### AURKEZTEKO MODUA

\_ Lanak bi modutan aurkez daitezke: eskuizkribu moduan (grafia argiaz eta zuzenketa edo ezabaketarik gabe) edo tipografiatua. Saritutako egileak, emaitzak eman eta handik 30 egun baino lehen, kopia informatizatua eta interpretaziorako behar diren artxibo informatikoak helarazi beharko dizkio antolakuntzari, inprimaturik.

\_ Partituran lanaren izenburua edo leloa bakarrik agertuko da. Ez da onartuko identifikazio pertsonalaren edo sinaduraren inolako zantzurik. Horretarako beharrezkoa izango da obraren artxibo originaletik konpositorearen identifikazio pertsonala ezabatzea. Izen abizenekin aurkeztutako obrak ez dira onartuko.

\_ Lehiaketa honetan parte hartzeko, ondorengo estekan eskatzen den informazioa eta dokumentazioa bete eta bidali beharko da: <https://forms.gle/2y5MQeEauZJEeU2J7>

1. Obraren ale bat formatu digitalean (edo deskargatzeko esteka; obraren egileak ziurtatu beharko du deskargatzeko beharrezkoak diren baimenak aktibatuko dituela.) Eskuz idatzitako partituren kasuan, artxibo digitala eskuizkribuaren eskaneatze bat izango da, irudi-kontraste nahikoarekin.

2. Biografia laburra.

3. Jaiotza-data egiaztatzen duen agiri ofizialaren fotokopia.

4. Lehiaketa honetan parte hartzea **doakoa** izango da, ez da tasarik ordaindu beharko.

- Osorik ez bidalitako edo berandu bidalitako proposamenak ez dira kontutan izango.

- Konpositore irabazleak 2025eko martxoaren 1a baino lehen beste obra berria idazteko konpromezua hartuko du.

- Hautatutako konpositoreak idatziko duen obra berrian, azpigitulu gisa, hurrengo aipamena jarri beharko da:

**"Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkartearen enkargua."**